

# ENPRESEN konfiantza

2018KO 1. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK

LABORAL Kutxaren Ikerketa Departamentua




LABORAL  
kutxa

# 2018KO 1. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK




# 1 FAKTURAZIOA

Enpresek 2018ko lehen hiruhilekorako aurreikuspen positiboak dituzte fakturazioaren harira: % 59,1en ustez, mantendu egingo da, eta % 30,5en ustez, hobera egingo du. Enpresen %10,4k uste du fakturazioa txarragoa izango dela.




## 2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta 2018ko lehen hiruhilekoan espero den jardueraren bilakaeraren aurrean, % 58,5ek uste du ez dela aldaketarik egongo, eta % 27,7k hobera egingo duela. Laginaren % 13,9k baino ez du uste jarduerak okerrera egingo duela.




### 3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, honako zalantza hau sortu zaigu: fakturazioa eta jarduera hobetuko dela uste dutenek gehiago saltzea ala garestiago saltzea espero dute? Emaitzek diote eskabideen bolumena hobetzeko igurikimen argia dagoela. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 58,2k uste du bolumenean ez dela aldaketarik egongo, eta % 30,3k hobera egingo duela. % 11,5ek baizik ez du uste eskabideen bolumenak behera egingo duela.




## 4 | PREZIOAK

Prezioei dagokienez, egonkor jarraituko dutela uste dute gehienek; izan ere, inkestagileen % 4,9k uste du prezioek bere horretan jarraituko dutela lehen hiruhilekoan. Gainerako enpresetatik, % 14,1ek uste du prezioak handiagoak izango direla; gainerako % 11k, berriz, txikiagoak izango direla.



## 5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen errentagarritasunari buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 69,2ren arabera ez da aldaketarik egongo; enpresen % 17,3k uste du handiagoa izango dela eta % 13,5ek errendimendu txikiagoa lortuko duela.



## 6 | INBERTSIOA

Orain arte azterturiko datuen arabera, egoera nahiko positiboa da, eta, ondoren ikusiko dugunez, badirudi enpresek ahalmen produktiboa eta, ondorioz, langileen kopurua handitzeko asmoa dutela.


Inbertsio-bolumenari dagokionez, enpresen % 70ek uste du eutsi egingo diotela 2018ko 1. hiruilekoan. % 21,6k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Horrenbestez, gainerako % 8,4ak uste du behera egingo duela.





## 7 ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 74,6k erantzun du enpleguan ez dutela aldaketarik espero; % 19,3k langile taldea handitzeko itzaropena du eta % 6,1ek guztiz kontrakoa (plantilla murriztu egingo duela).




2018KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



## 8 KONFIANTZA INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazle guztiak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu, Konfiantza-indizea eskuratzeko, emaitza hau lortuko dugu: 56,8. Horrek esan nahi du enpresen baikortasuna zertxobait murriztu dela 2018ko lehen hiruhilekoan ekonomiak izango duen bilakaeraren harira. Dena dela, indizea 50 puntutik gora egonik, hedapen-eremuan gaude oraindik orain. Datu hori bat dator beste esparru geografiko interesgarri batzuetan, hala nola Espainian (urriko datua: 55,1) eta Eurogunean (azaroko datua: 57,5), lortutako datuekin.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko esportazioen bilakaerari dagokionez, inkestaren % 59,2k uste du bere horretan jarraitu duela eta % 5,5ek hobera egin duela. % 15,3ren iritzian, kanpoko salmentek txarrera egin dute.




## 9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean berrikuntzari edo I+Gko ekimenei bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestaturen % 66,9 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 0,5 artean. Bestalde, % 5,9k % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




## 10 | BEZEROEI KOB RATZEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 9,2ren ustez, bezeroei kobratzeko epean ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta luzatu egin da enpresen % 15,2ren esanetan. Hala, enpresen % 5,6ren esanetan, kobratzeko epea laburtu egin da.



## 11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA


Amaitzeko, inkestaren % 69,2k erantzun du bankuen finantzaketa eskuratzeko aukerak ez duela aldaketarik izan azken urtean. Gainerako enpresei dagokienez, % 23,2k dio hobetu egin dela, eta % 7,6k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.



## 12 | KATALUNIAKO KRISIAREN ONDORIOAK

Amaitzeko, 1. hiruhilekorako aurreikuspenei buruzko laginean beste galdera bat ere gehitu dugu, Kataluniako krisiak enpresen emaitzetan izan duen ondorioak direla eta.

Ikus daitekeenez, enpresen % 82,2ren ustez EZ du ondoriorik izan emaitzetan, nahiz eta % 17,8k kontrakoa pentsatu. Azken horiei dagokionez, % 31,7ren ustez zuzeneko ondorioa izango du euren erosketetan edo salmentetan, eta % 68,3ren ustez, berriz, zeharkako ondorioa jasango dute.




A large, stylized logo consisting of the letters 'G' and 'V' in a bold, sans-serif font. The 'G' is a thick, dark grey ring with a white center, and the 'V' is a solid dark grey shape. The logo is positioned on the right side of the slide, partially overlapping the text.

ADIERAZLEAK 2017AN IZAN DUEN  
BILAKAERAREN LABURPEN DIAGRAMA



## 13 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Diagrama honetan, aztertu ditugun azken bi hiruhilekoetako igurikimenen adierazle partzialen balioa eta osoko balioa ikus daitezke.



## Fitxa teknikoa eta metodologia

---

EAEko 400 enpresari egin zaio inkesta.

---